

Auxe iristea bedi nere eginkizuna,
auxe iristeko gaurtik gaua ta eguna...
Zertako izango ditut poza ta dirua
arkitzen ba'naiz noizpait betiko galdua?

Gaurtik auxe izango da nere egin-bearra,
nere amets bultzakor, nere lan bakarra:
Anima salba nai det... Au det erabaki:
lan ontan galdu-arren esku eta begi.

Jesus Salbatzaillea,
ene Jesus ona!
Ote det iritxiko
Goiko Zoriona?
Emen, Jauna, zigortu
nere pekatuak,
gero laztan nazaten
beti Zure eskuak.

Jautarkol

ITZULIKO NAUK

Sortu bearra!
Azke nintzala usterik
ibilkari irten nian...,
goian zerua ta beian lurra,
biotza aintzin nuelarik
ta ametsak buruan.
Ai! ametsa utsa ez ba'litz...
Gogoaren kateak
ingurua lotuarren,
nork siñistu amiltegiz?
Orain bideak ditut mingotsak,
oiñaze beltzak ditudalarik aurren.

* * *

Illerrian, esku maitaleak
apaindurik zaudeten loretegiak,

eriotzaren berri jakille
zeraten ziprez beltzak:
Orduren baten,
nere ibillera nekegarriaren
uztarria astinduaz,
pake donean itzuliko nauk,
atseden billa, zuen oinpera makurtuaz.
Azke zala usterik,
baiñan amets utsa izanik,
lurrean on ez-ezik kalte
egiñiko anai ondatzaillea natzaizute.
Baiñan, arren, Jaunaren izenean,
artu nere gorputza zuen altzoan.

OTSALAR

ZAURITUAREN NIGARRA

Gazte-miñ naiz. Kopetez
ximur, buruz xoil,
ule bi, eguzkiaren
dirdai. Matrail
txuri-gorritxoan printzak
ixpilluan ikuski,
zar itxura damaidate.
Gizona izaki,
biotza dut poz-mugida
taupaden nagusi.
Gaztetan nornai duk eder.
Izan nintzan. Bai!!
Baño, erleak ezta
lilietan dagi,
aukeraren egarriz.
Krabeliñaren izpi
ninduzun... ta zaputz...
Ordutik dut eri.
Usaindu baninduten...
Bitoz-miñ egonki,